

## **MERKATUAREN SEGMENTAZIOA**



Gure proiektua higiena eta zaintza pertsonala eta osasunarekiko kezka duten pertsonentzat bideratuta dago. Gaur egun, koronabirusa dela eta pertsonen osasunarekin geroz eta kezka handiagoa izan ohi dute, birusak eta kutsakortasunak duten indarra nolakoa den kontziente izan garelako. Horren ondorioz, jendeak zuhurragoak izaten ikasi du, eskuak gehiago garbitzen edo bere garaian musukoarekin. Higienearikiko kontzientzia eta han zaintzen duten pertsona horiei dago bideratuta gure produktua.

Produktu honen diseinua minimalista izango da. Gaur egungo garai hauetan oso modan dago gauza pertsonalenak erakustea, adibidez: zure etxea. Gauzak erakusten direnean, beti dena ahalik eta politena eta dotoreena izaten saiatzen gara. Horregatik, gure produktuaren diseinua minimalista, dotorea, sinplea eta batez ere praktikoa da. Gainera, kolore desberdinetan salduko da, edozeinek bere etxearekin konbinatzea nahi badu. Kolore horiek beltza, zuria, beige eta grisa izango dira, hasiera batean behintzat. Denbora aurrera joan ahala eta enpresa haunditu ahala posible da kolore gehiago eskeintzea, eskariaren arabera. Azkenik modernistentzat ere bideratuta egongo da, sistema aurreratu bat duelako.

Gure bezeroak 25 urtetik gorakoak izan behar dira produktua era praktikoki erabil ahal izateko. Mekanismoa hain da sinplea, inork ez duela zailtasunik izango produktu hau erabiltzeko.

Gure produktua merkatu masiboari dagokio, bezero mota zehatz bateri zuzenduta ez dagoelako. Bai balorezko proposamenak, bai banaketa kanalak, eta bai bezeroarekiko harremanak talde handi eta bakar batean oinarrituta daude, zeinak antzeko beharrianak eta arazoak dituzten. Gure proiektuaren kasuan, beharrianak higienaren edo osasunaren bilaketa dira, praktikotasuna eta estetika eskeiniz. Arazoa berriz, bakterio eta birusek duten arriskua hortzetako eskuilan geratzen direnean.

Ondorioz, gure produktua bezero mota anitzeri zuzenduta dago, produktu polifazetikoa delako, hau da, modu askotara erabili daitezkelako. Estetikari erreparatuz, bere praktikotasunean oinarrituz edo osasun arloa hobetzen zentratuz.

Bezeroak edozein negozio-ereduren muina direnez, beraien beharrianak asetzea da gure helburu nagusia. Izan ere, ez baita haiek gabe denbora luzez iraungo duen enpresarik.